



## BEZERO SEGMENTUA

Aipatu dugun bezala, Gu Daily Food enpresa gara, eta gure enpresan kontsumituko duten bezeroak horrelakoak izan daitezke:

Balio proposamenean esan dugun bezala, gure enpresaren xedea kontsumo arduratsuari eustea da eta elikagai xahuketa saihestea da. Hori dela eta, gure bezeroak, gure **helburura batu nahi diren pertsonak** izango dira gure produktuak erosteko arrazoietako bat, haiek ere kontsumo arduratsua egin nahi dutela izango da.

Gure bezeroak ez dira soilik gure helburuarekin bat egiten duten pertsonak, gure tabernara **edozein pertsona** sar daiteke bertan kontsumitzera. Esate baterako, kafe bat hartu nahi duen pertsona bat, lasai egotera joan den lagun talde edo familia bat...

Azkenik, gure **web orrian ere bezeroak** eduki ditzakegu. Bertatik edozein pertsonak gure platerak aukeratzeko eta bertatik kontsumitu nahi dutena **erreserbatzeko** aukera izango dute. Hori gutxi balitz, web orriaren bidez ere, gure web orriko arduradunekin **hitz egiteko aukera** edukiko dute zalantzarik badute.